



2013KO URRIAREN 2SEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko urriaren hogeita bostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko urriaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 59 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAU MILA ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (4.078,78 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- ELEKTRIZITATE HORNIDURAREN KONTRATAZIOA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioako eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2011ko urriaren 10eko foru aginduaren bitartez, IBERDROLA GENERACION SAU (IFZ.:A95075586) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez argindar elektrikoa hornitzeko esparru akordioa (X13010) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2013ko urriaren 23an emandako txostenaren arabera proposatu du hornikuntza elektrikoko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 30/2007 Legearen 182. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA GENERACION, S.A.U. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.



Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitze-ko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X13010) IBERDROLA GENERACION S.A.U. enpresari (IFZ.:A95075586) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzko atala da honekin batera doan laburpena, prezio unitarioena eta aldiena, 2013ko urriaren 14koa, bere espedientean dagoena.

BIGARREN.- IBERDROLA GENERACION SAU, N.I.F.:A95075586, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, elektrizitate kontsumoen gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Domarda Elkartek Esparruko Erromeria antolatzeagatik Kultura Batzordeak egin-dako dirulaguntza proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Domarda Elkarteari HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO (330€) ko dirulaguntza ematea onartzen du.

V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

2013ko irailaren 21ean "Euskaraz bizi nahi dut" ekitaldia burutu zen, Kontseiluak erakundeak proposatuta. Bertan, izena emate eta kamiseta salmentan mila ehun eta lau- rogei euro (1.180€) bildu ziren.

Egitarau hau aurrera eramatea dela eta, Euskara Batzordetik bildutako diru hau gehi izandako gastuengatik beste berrehun euro (200€) ko dirulaguntza Kontseilua Era- kundeari ematea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- UDALAREN LANGILEEI PRODUKTIBITATE GEHIGARRIA.-

Lazkaoko Udalaren langileek denboraldi honetan udal kudeaketan garatutako hel- buruak lortzeko egin duten lana kontutan izanda, langileek erakutsitako interesa, helburu horiek udal langileen inizatiba eta errendimentuak lagunduta lortu direnez eta Lazkaoko Udalak diseinatutako kudeaketa efikaz eta transparentean udal langileek aurrerapausu ga- rrantzitsuak ematen lagundu dutela kontutan izanda baita ere, izaera singular eta ez-ohi- koz eta 2013 urteari bakarrik eraginez, Lazkaoko Udalaren langileei produktibitate gehiga- rria esleitzea proposatzen da. Gehigarri hau, langile bakoitzarentzako, bere soldataren hi- labete bateko ordainketa gehi bederatziehun eta bederatzia euroko batuketaren emaitzaren zenbatekoa izango da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du aurka ez direla azalduko baina lege aldetik egon daitezkeen eragozpenak direla eta, abstenitu egingo dela.



Gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (EAJ), 2013 urtean Lazkaoko Udalaren langileei proposatutako produktibitate gehigarria ordaintzea onartu egiten du.

VII.- UDALBILTZARI DIRULAGUNTZA.-

UDALBILTZA Partzuergoari dirulaguntza emateko eskariaren aurrean.

AURRETIKOAK

- I.- UDALBILTZA Partzuergoari bost mila (5.000 €) euroko dirulaguntza ematearen proposamena egiten da. Bere estatutuen arabera, Udalbiltza Partzuergoaren helburuen artean udalen arteko elkarlana bultzatzea eta Euskal Herriko herrialde ezberdinen arteko lurralde egituraketa zein garapen sozial, ekonomiko eta kulturala sustatzea daude.
- II.- Egiatzatu da kreditu egokia eta behar adina dagoela, dirulaguntza emateak berarekin dakartzan betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko.
- III.- Udal honetako aurrekontuen betearazpen oinarrietan UDALBILTZAren alde dirulaguntza emateko aurreikuspena ezarri da, izen eta guzti ezarri ere, eta egiatzatu da Partzuergoaren xedek bat datozela udal eskumenekin, eta horrek frogatzen du bete egiten dela interes publiko eta sozialarekin bat etortzeko baldintza, huraxe baitute xede bai udalerrri honek bai aipatu partzuergoak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ikusirik indarra duten arauen artean aplikatu beharrekoak, bereziki UDALBILTZA Partzuergoaren Estatutuak, eta orobat ikusirik Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Toki Erakundearen Zerbitzu Arautegia.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, zera

ERABAKITZEN DU

Lehenena.- UDALBILTZA Partzuergoari zenbateko honetako dirulaguntza ematea: BOST MILA (5.000 €) euro, 2013ko ekitaldirako jarduketara programan aurreikusita dauden jarduerak finantzatzeko, indarra duen antolamendu juridikoarekin eta udal eskumenarekin bat baitatuz jarduerak horiek.

Bigarrenena.- Ebazpen hau jakinaraztea UDALBILTZA Partzuergoari.

Hirugarrenena.- UDALBILTZA Partzuergoari onetsitako zenbatekoa ordaintzea, dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat aldeztu aurretik izenpetuta.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak sei minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

